# PROGRAMA

## 2019

Urtarriletik
uztailera




**Donostiako**
**Emekumeen**
**Etxea**



## DONOSTIAKO EMAKUMEEN ETXEA

**Helbidea:**
Okendo 9, 20004 Donostia

**Telefonoa:**
943 48 34 70

**E-mail:**
info@donostiakoemakumeenetxea.com
berdintasuna@donostia.eus

**Web:**
donostiakoemakumeenetxea.com

**Ikastaroetan Izen-ematea:**
Urtarrilaren 9tik 21era bitartean egingo da.

- Ikastaro eta zerbitzu guztiak doakoak dira.
- Pertsona bakoitzak gehienez hiru ikastarotan eman ahal izango du izena.
- Zerbitzuetan hartutako hitzorduetara edo tailerretara abisatu gabe joaten ez direnek ezin izango dute zita berririk eskatu edo ikastaro berrietan parte hartu urtebeteko epean.
- Ikastaroa hasi eta gero utzi nahi dutenek, etxeko koordinatzaileei jakinarazi beharko diete. Hiru saiotan kale egiten duenak ezer esan gabe, ezingo du ikastaro gehiagotan parte hartu urtebeteko epean.

DONOSTIA SAN SEBASTIÁN
Berdintasuna
Igualdad

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputatu Nagusia
Berdintasun Zuzendaritza Nagusia
Dirección General de Igualdad

DONOSTIAKO EMAKUMEEN ETXEA ELKARTEA

**Lan hildo orokorrak**

■ indarkeria ■ autonomia ■ artibismoa ■ kulturaniztasuna ■ zaintzak

## AHALDUNTZE TALDEAK

- Indarkeriarik gabeko bizitzaren aldeko emakumeak
- Desgaitasun ahalduntze taldea
- Jatorri askotariko emakumeentzako kulturarteko gunea
- Irakurle eskola feminista
- Aktibismoa - artearen bidez
- Ederlezi Abesbatza
- Batukada feminista
- Klown

## TAILERRAK

- Empalabramiento
- Zaharralduntze feminista
- Artearen inguruko begirada teoriko-feministak
- Musika eta ahalduntzea
- Gure burua maitatzen ikasi-autozaintza
- Ekintzarako motibazioa

## ZERBITZUAK

- Arreta eta bideraketa
- Etxeko langileentzako aholkularitza
- Aholkularitza laguntza taldea
- Gizarte aholkularitza
- Aholkularitza juridikoa eta gizarte esku-hartzea
- Lege aholkularitza
- Norbanakoaren jabekuntzarako gunea
- Biluzik mundura
- “Igualate” ikasketa homologatzeko kanpaina
- Ordenagailu eta internet zerbitzua



# AHALDUNTZE TALDEAK

## Indarkeriarik gabeko bizitzaren aldeko emakumeak

Dinamizatzailea: **Beatriz Zalakain**

Indarkeria matxistari aurre egiten dioten edo aurre egin izan dioten emakumeak taldean egoteko gunea. Astean behin biltzen dira (joatea libre da). Autolaguntza taldea da. Askatzeko hainbat modu baliatuta, indarkeriari irtenbideak bilatzen laguntzen du. Emakumeek beldurrak, isolamendua, tristeziak eta kulpak partekatzen dituzte beren artean, eta barnean duten indarrarekin konektatzen saiatzen dira: zer gertatzen zaien jakitea, pozarekin konektatzea, nork bere gorputza zaintzea, desirekin duten harremana ezagutzea eta taldearen laguntza jasotzea, indarkeriarik gabe bizitzen laguntzeko.

Eguna
**Osteguna**
Ordua
**16:30 - 18:30**
Hasiera
**Urtarrilak 17**
Amaiera
**Ekainak 20**
Hizkuntza
**Gaztelania**
Antolatzailea
**Berdintasun Saila**

# Jatorri askotariko emakumeentzako kulturarteko gunea

Dinamizatzailea: **Beatriz Zalakain**

Jatorri desberdineko emakumeak taldean egoteko gunea. Astean behin biltzen dira (joatea libre da), beren bizitzan migrazioa nola bizi duten elkarrekin aztertzeko. Zailtasunetatik ikasten dute eta banakakoen eta taldearen lorpenak sozializatzen dituzte. Osasun fisikoa eta emozionala hobetzeko eta bizi diren hirian gehiago sustraitzeko tresna eta baliabideak bereganatzen dituzte; isolamendutik ateratzen dira; euskal gizartea eta jatorrizko gizartea, biak, ezagutzen dituzte; elkarrekin aisialdi, dibertsio eta ezagupen ekintzetan parte hartzen dute.

Eguna
**Asteartea**
Ordua
**16:00 - 18:00**
Hasiera
**Urtarrilak 15**
Amaiera
**Ekainak 18**
Hizkuntza
**Gaztelania**
Antolatzailea
**Berdintasun Saila**

# Desgaitasuna duten emakumeen ahalduntze taldea

Dinamizatzailea: **Rosa Ugalde**

Desgaitasuna duten emakumeak elkartzeko gunea da, norbere burua ezagutu eta aitortu ahal izateko. Desgaitasuna duten emakumeek bizi duten diskriminazio bikoitzaren egoera aztertzea du xede talde honek, ahultasunari eta desparekotasunari aurre egiteko.
Horretarako ezinbestekoa da beraien eskubideak ezagutzea eta horien gauzatzea sustatzea, norbanako eta taldeko ahalduntzea lantzeko bidean.

Eguna
**Ostirala**
Ordua
**11:30 - 13:30**
Hasiera
**Urtarrilak 11**
Amaiera
**Uztailak 12**
Hizkuntza
**Elebiduna**
Antolatzailea
**Berdintasun Saila**

■ Kulturaniztasuna ■ Autonomia

## Irakurle eskola feminista

Formatzailea: **Iratxe Retolaza**

Irakurle talde honetan pentsamendu feministan arakatzea izango dugu helburu, eta pentsamendu feministak sorturiko galderak, kezkak, giltzarriak eta diskurtsoak izango ditugu eztabaidagai. Horretarako, hainbat irakurgai (testu solteak, artikuluak edota liburuak) landu, eta horien inguruko gogoeta egingo dugu, betiere diskurtso feministek zabaldu dituzten bidezidorretan ibiltzeko asmoz, nork bere esperientziatik hitz eginez, nork bere gorputzetik.

Eguna
**Asteartea, hilean behin**
Ordua
**19:00 - 20:30**
Hasiera
**Urtarrilak 8**
Amaiera
**Ekainak 18**
Hizkuntza
**Euskara**
Antolatzailea
**Emakumeen Etxea Elkartea**

---

## Aktibismoa - Artearen bidez

Formatzailea: **Ustaritz Betelu**

Artearen bitartez ahalduntzeko espazioa. Teknika ezberdinak probatzeaz gain kale artea egiten dugu eta baita sormena landu ere. Mundua kolorez aldatu nahi baduzu hau da zure lekua.

Eguna
**Astelehena**
Ordua
**18:30 - 20:00**
Hasiera
**Urtarrilak 28**
Amaiera
**Ekainak 24**
Hizkuntza
**Elebiduna**
Antolatzailea
**Emakumeen Etxea Elkartea**

---

## Batukada Feminista

Formatzaileak: **Arantxa Vicedo eta Ainara Sarasketa**

Emakumeen Etxeko Batukada edo Sorginbanda, elkartzeko, era kolektibo batean sortzeko eta musikaren bidez kaleak hartzeko gune feminista bat da. Orain talde honek toki berri batzuk aterako ditu, Batukadan sartu nahi duzuenentzat, beraz, interesatuta egonez gero, azkar ibili eta etorri Emakumeen Etxera izena ematera!

Eguna
**Asteazkena**
Ordua
**18:30 - 20:30**
Hasiera
**Urtarrilak 16**
Amaiera
**Ekainak 12**
Hizkuntza
**Elebiduna**
Antolatzailea
**Emakumeen Etxea Elkartea**

# Ederlezi abesbatza

Formatzailea: **Bettina Aragon**

Emakumeen Etxeko abesbatza adin, jatorri eta eskarmentu desberdinetako emakumeak biltzeko xedearekin jaio zen. Kantu koralaren bitartez, emakumeok ahalduntzea eta gure osasuna zaintzea nahi dugu eta askotariko abestiak erabiliz, jatorri ezberdinetako emakumeak biltzea ere nahi dugu.

Eguna
**Ostirala**
Ordua
**19:30 - 21:00**
Hasiera
**Urtarrilak 18**
Amaiera
**Ekainak 21**
Hizkuntza
**Gaztelania**
Antolatzailea
**Emakumeen Etxea Elkartea**

# Klown

Formatzailea: **Bea Egizabal**

Sudurrean gorria eta gorputzean irria
Farra egiten badakizu ziur. Jolasten ere badakizu. Eta egingo duzu edo behar bada aspaldi ez dezula egiten. Klown tailerrean hori behintzat aurkituko duzu jolasa, irrifarra eta tarteka algarak. Horrekin batera porrotaren aurrean zure jarrerak ere aldaketaren bat izango du eta dena emakumez ingurututa. Gurekin jolastu nahi?

Eguna
**Astelehena**
Ordua
**18:30 - 20:00**
Hasiera
**Urtarrilak 28**
Amaiera
**Ekainak 17**
Hizkuntza
**Elebiduna**
Antolatzailea
**Emakumeen Etxea Elkartea**





# TAILERRAK

## Empalabramiento

Formatzailea: **Nerea del Campo**

Empalabramiento Nerea del Campo formatzaileak berak sortutako hezkuntza metodoa da. Metodo honen xedea da emakumeen ahalduntzea sustatzea gaztela bigarren hizkuntza bezala ikasiz (eta euskara pixka bat ere bai). Gaztelera hitz egiten ez den herrialdeetatik etorritako emakumeei zuzendutako tailerra da, euren eskubideak izendatzen ikasi dezaten, eskubide osoko hiritarrak izateko.

Eguna
**Osteguna**
Ordua
**10:00 - 12:00**
Hasiera
**Urtarrila 10**
Amaiera
**Ekainak 20**
Hizkuntza
**Gaztelania**
Antolatzaileak
**Berdintasun eta Kulturaniztasun Sailak**

## Zaharralduntze feminista

Formatzailea: **Bizitzen Fundazioa**

ADINKERIA gure gizarteko hiru diskriminazio nagusietako bat da, arrazakeriaren eta sexismoaren atzetik. Diskriminazioa emakumeek pairatzen dute batez ere, bizi itxaropen luzeagoa dutenez, matxismoaren efektuak indartu egiten direlako. Emakumeok zahartzarora iristen garenean, ez dakigu ezer pairatu behar dugun ikusezintasun eta bazterkeriaren inguruan, eta gizartearen adinkeriari eta sexismoari lotutako estereotipoak barneratu ditugu. Adinkeriak emakume guztiak desahalduntzen ditu, edozein adinekoak direla ere.

Eguna
**Asteazkena**
Ordua
**10:00 - 12:00**
Hasiera
**Urtarrila 16**
Amaiera
**Apirilak 10**
Hizkuntza
**Gaztelania**
Antolatzailea
**Berdintasun saila**

■ Autonomia ■ Indarkeria

## Artearen inguruko begirada teoriko-feministak

Formatzailea: **Lola Roldan**

Ezagutza diziplina ezberdinetan gertatzen den bezala, Artearen historia patriarkatuaren irakurketa hegemonikoaren menpean egon da, historian zehar emakumeek egindako proposamen artistikoak alde batera utzita ez ezik, emakumeek egindako obrak eta ideiak gizonezkoenak bezala joz ere. Ideologia patriarkala agerian jartzea eta Artean eduki izan duen eragina erakustea ez da erraza. Tailer honetan Arte Greziarra eta Erromatarra patriarkatua ezartzeko eta mantentzeko nola erabili zuten hausnartuko dugu.

Eguna
**Asteazkena**
Ordua
**19:00 - 20:30**
Hasiera
**Otsailak 6**
Amaiera
**Apirilak 24**
Hizkuntza
**Gaztelania**
Antolatzailea
**Emakumeen Etxea Elkartea**



## Musika eta ahalduntzea

Formatzailea: **Olatz Salvador**

Musikak izan dezake jarduera publikotik asko, eta publikoak diren gainontzeko plaza guztiak bezala, sormenaren esparru hau ere ukatzen zaigu emakumeoi. Panorama musikalari so eginda, oso gutxi dira esfera publikora salto egitera ausartu diren emakumeak. Espazio honek emakumezkoei beren sorkuntza musikala garatu eta jende aurrean aurkezteko tresna izan nahi luke. Prozesu guzti horretan babes sare bat sortu eta beharrezko baliabideak eskaintzea oso garrantzitsua da izaera artistikoa modu osasuntsuan garatzeko.

Eguna
**Osteguna, hambost egunean behin**
Ordua
**18:30 - 20:30**
Hasiera
**Otrsailak 7**
Amaiera
**Ekainak 13**
Hizkuntza
**Euskara**
Antolatzailea
**Emakumeen Etxea Elkartea**



## Gure burua maitatzen ikasi-autozaintza

Formatzailea: **Kontxi López**

Hausnartu eta esperimentatu nahi duten emakumeentzako espazioa eta, era berean, ohartzeko zer gertatzen zaigun arreta geure gorputzetan, geure azalean eta geure nahietan jartzen dugunean. “Geure burua maitatzen ikasi autozaintzaren bitartez” tailerra gogoetarakoa da eta proposamenak eskaintzen ditu zure bizitzan beharrezkoak diren aldaketak egiteko eta bizi-kalitatea hotzeko. Taldean lan eginez, hainbat baliabide ikasiko ditugu mintzen gaituena atzean uzten eta jokabide zuzeneko harremanak izateko modu berriak eraikitzen lagunduko digutenak; betiere, geure buruarengandik hasita. Autozaintza, autoezagutza eta garapen pertsonalerako lekua eraikiko dugu.

Eguna
**Asteartea**
Ordua
**18:00 - 20:00**
Hasiera
**Maiatzak 14**
Amaiera
**Ekainak 25**
Hizkuntza
**Gaztelania**
Antolatzailea
**Berdintasun saila**

## Ekintzarako motibazioa

Formatzailea: **Nerea Redondo**

Emakumeak desberdinak gara denak eta uneoro desberdin sentitzen gara. Aritu ere, ezberdin aritzen gara. Hiru motibazio izan ohi ditugu bizitzan aurrera egiteko: bidearen amaieran saria bistaratzea, zigor edo mehatxuek behartuta aritzea edo automotibazioa.
Azken hau da, zalantzarik gabe, eraginkorrena, baliagarriena eta bakoitza gehien asebetetzen duena. Motibazioa barne indarra da. Norberaren esku dago ilusioa piztea eta su hori mantentzea. Motibatzen ikasi nahi?

Eguna
**Osteguna**
Ordua
**18:30 - 20:30**
Hasiera
**Otsailak 14**
Amaiera
**Martxoak 28**
Hizkuntza
**Euskara**
Antolatzailea
**Emakumeen Etxea Elkartea**

Zaintza    Autonomia

# Arreta eta Bideraketa

Informazioa, orientabidea eta harrera Emakumeen Exeko bertako baliabideetara edo kanpokoetara bideratzea.

Egilea:
Emakumeen Etxeko bertako langileak

**Astelehenetik ostiralera**
**10:00 – 21:00**
**Hitzordurik gabe**

# Ordenagailu eta Internet zerbitzua

Astean Zehar. Doako erabilera.

**Ordutegia:**
**10:00 - 21:00**

# Etxeko Langileentzako Aholkularitza

Eskubideak eta betebeharrak, soldatak, kontratu motak, oporrak, egun eta ordu libreak, kotizazioak, baimenak, kaleratzeak... inguruko aholkularitza.

Egilea:
Ana Lopez eta Juana Aranguren

**Astelehena**
**16:30 - 18:30**
**Hitzorduarekin**

# Aholkularitza Juridikoa eta Gizarte Esku-Hartzea

Espetxe eta zigor zuzenbidea.
Atzerritartasuna.
Lanerako zuzenbidea.
Genero indarkeria.
Hirugarren adina: erretiroa, pentsioa, alarguntasuna...
Tramiteak egiteko laguntza.

Egilea:
Arrats Elkartea

**Asteazkena**
**16:00 - 18:00**
**Hitzorduarekin**



# ZERBITZUAK

## Lege Aholkularitza

Famili zuzenbidea, lanerako zuzenbidea, atzerritartasuna, genero indarkeria.

Egilea:
Emakume Bananduen Elkartea

**Asteazkena**
**19:00 - 21:00**
**Hitzorduarekin**

## Norbanakoaren Jabekuntzarako Gunea

Aholkularitza, prebentzioa eta ahalduntzea helburutzat izanik eta metodologia elkarreragileaz baliatuz, norberaren indarretan oinarritutako baliabideak lortuko dira.

Egilea:
Maite Santamaria

**Asteazkena**
**10:00 - 13:00**
**Hitzorduarekin**

## Aholkularitza, Laguntza Taldea

Errotutako jarrerak eta erruduntasun sentimenduak landu nahiz aldatzeko. Indarkeriari aurre egin eta autonomia areagotzeko.

Egilea:
Aizan

**Asteartea, hamabostero**
**14:30 -16:00**
**Hitzorduarekin**

## Gizarte Aholkularitza

Gizarte laguntzei buruzko informazioa behar duzu? Etxebizitza? Enplegua edo formazioa?

Egilea:
Elkartu

**Asteartea**
**16:00 - 18:00**
**Hitzorduarekin**

## Biluzik Mundura

Sexualitate informazioa eta aholkularitza zerbitzua.

Egilea:
Lahia Nahia
Sexologia Elkartea

**Astelehena**
**17:00 - 20:00**
**Hitzorduarekin**

## “Iguálate” Ikasketen Homologazioa

Atzerrian egindako ikasketen tituloak balioztatzeko aholkularitza eta laguntza.

Egilea:
Bidez Bide

**Osteguna**
**10:00 - 12:00**
**Hitzorduarekin**

☎ **943 48 34 70**